


ARGITARAPEN BERRIA

Irudi pertsonala lanbide-familiaren material berria



Liburu honen helburua da etorkizuneko profesionalak irudi korporatiboari buruzko guztia ikastea, etorkizunean bere bezeroekin landu ahal izateko.

[Deskargatu](#)



PROPOSATU HIZKELAN VII JARDUNALDIRAKO GAIAK

Urriaren 18an, Mendizabala LHII-n



Egin zure proposamenak [hemen](#)



LANBIDE HEZIKETAKO TERMINOAK

Terminoen erabilera bateratu da hainbat, eragilek adostuta: LH-ko Sailburuordetza, Ivac-eei, Ivap eta Laneki.

Bateratutako terminoak:

GAZTELERAZ

Familia profesional

Campo profesional

Área profesional

Área de desarrollo profesional

Área de conocimiento

Ámbito de conocimiento

EUSKERAZ

Lanbide-familia

Lanbide-eremu

Lanbide-arlo

Lanbide-garapeneko arlo

Ezagutza-arlo

Ezagutza-esparru

Oharra: ikastetxeetako euskarrietan terminologia bateratua erabiltzea komeni da, honenbestez dituzuen euskarrietan eta sortuko dituzuenetan (web gune, aldizkari, esku-orri...) terminologia hau erabiltzea gomendatzen da.



EUSKARALDIAN IZENA EMAN



Nola parte hartu aurten?

2020 edizioan parte hartu zenutenok intranetean sartu eta datuak eguneratu besterik ez duzue egin beharko.

Datuak eguneratzeko [JARRAIBIDEAK](#). Datuak eguneratzeko moduaren azalpena duzue lotura horretan, pausoz-pauso azalduta.

Ariguneetako kideen izen-ematea

Aurten entitateen datuak berrestez gain, entitatearen baitan sortu diren ARIGUNEetako kideek ere izena emateko aukera izango dute.

Ariguneetako kideek izena-emateko aukera EKAINAREN 3tik aurrera zabalduko da.

Eta izen-emate horiek egiteko behar duzuen lotura, egun horretatik aurrera iritsiko zaizue zuen erabiltzaileari lotuta dagoen helbide elektronikora.

Lotura propioaren (URL) eskuratzea

Lotura propioa eskatzeko bi baldintza bete behar dira: orotara 50 langile baino gehiago dituen entitate izatea eta herriz gaindikoa izatea.

Lotura propioaren eskaera egiten duzuenok datozen egunetan mezu bat jasoko duzue loturaren gaineko argibideak eta zehaztapenak azaltzen.